

LANERAKO FITXA: **HARMONIA ORKESTRA**



Jarduera honekin, zera landuko dugu

Genero-desberdinkeria.

Errespetua.

Lankidetzeta eta taldeko lana.

GJH: **5.a**, istorioan generoari dagokionez agertzen diren aurreiritziengatik.

[Ezagutu garapen jasangarrirako helburuak \(GJH\).](#)

Iraupena

Saio bat.

Beharko dugun materiala

Harmonia orkestra ipuin edo bideoa.

Zikloak 1, 2, 3

Aurretiazko oharrak

Benetako superheroiek gaitasun batzuk izan behar dituzte jendeari lagundu eta arazoak konpondu ahal izateko. Adi egon behar dute beti, inguruabarrak aztertzen, informazioa biltzen, historia ezagutzen...

Gaitasun horiek lantzeko moduetako bat istorio hauetan gertatzen dena aztertzea da. Besteei laguntzeko orduan, neska-mutilei baliagarria izango zaie bertan jasotako informazioa.

Ipuin honen bidez, gauza garrantzitsu batzuk ikasiko dituzte:

- Besteak epaitzeko orduan, askotan aurreiritziak izaten ditugula konturatzea.
- Zerbait gaizki egiten badugu, zuzentzen saiatu behar dugula.
- Guztiok desberdinak garela konturatzea eta desberdintasun horiek, askotan, taldearen onerako izaten direla.

Garapena

Ipuina irakurri edo bideoa ikusi.

Arretaren proba (aukerakoa da, ikasleen adinaren arabera egiteko)

Ipuina irakurri edo bideoa ikusi ondoren, eta betiere ikasleen adinaren arabera, galdera batzuk egin ditzakezue, edukia ondo ulertu dutela ziurtatzeko.

Esaldi hauek egia edo gezurra diren esan beharko dute:

- Pepok buruz dakizki Akademiako gai guztiak.
- Klara itsua da.
- Pepok inoiz ez dio Klarari laguntzen.
- Klarak pianoa jotzen du.
- Neskek ez dituzte jotzen mutilek jotzen dituzten musika-tresnak.
- Argiak, bat-batean, itzali egin ziren.
- Orkestrako zuzendariak esan zien aretotik pixkanaka ateratzen joateko.
- Klarak hain zorrotza ez izateko gomendatu zion Pepori.

Hausnar dezagun

Hausnartu ipuinaren edukiaren inguruan, honelako galderak eginez:

- Zein dira istorioan ageri diren pertsonaia nagusiak?
- Nolako da Klara? Zeintzuk dira bere nortasunaren ezaugarri nagusiak?
- Zein unetan izan zituen Pepok beste pertsona batzuekiko aurreiritziak?
- Zer irakaspén atera dezakegu orkestratik? Gu ere musika-tresnak bezalakoak al gara? Hau da, elkarrekiko desberdinak izanik, elkarrekin emaitza bikainak lor al ditzakegu?
- Zertan izan daiteke aberasgarria edo lagungarria pertsona desberdinak elkarrekin aritzea?
- Istorioan ageri diren egoerak bezalakoetan, guk ere lagundu al diogu inoiz JustiNo mamuari?
- Zer egin dezakegu JustiNo mamuari ez laguntzeko?
- Zer ikasi du Pepok Klararengandik?

HARMONIA ORKESTRA

Kaixo, ni Pepo naiz. Dakizuen bezala, Jotango Akademian aritu naiz ikasten, benetako superheroi bat izateko. Gauza asko ikasten ditugu han, arazoak dituenari nola lagundu jakiteko.

Superheroiei izan nahi dugunok arreta handia jartzen dugu Akademian eta irakasten dituzten guztia adi-adi entzuten dugu. Gai guztiak buruz dakizkit, eta oso garbi daukat norbaitek arazoak dituenen nola lagundu behar diodan:

Norbait negarrez ikusten badut, **Jendeari maitasuna nola eman, 234. gaia**; norbait matematikekin itota ikusten badut, **Beharra dutenei nola lagundu, 6. gaia**.

Baina, batzuetan, Akademiatik kanpo ere oso gauza garrantzitsuak ikasten ditugu. Horregatik, nire ikaskide batekin gertatu zitzaidana kontatuko dizuet. Ikaskide horrek Klara du izena.

Klara itsua da. Horregatik, ezagutu nuenean, berehala hasi nintzaion laguntzen, superheroiek itsuei ere lagundu behar dietelako. Ateak irekitzen nizkion, errepideak zeharkatzen laguntzen nion...

Eta, gainera, Akademiari, superbotereei eta benetako superheroiei buruz hitz egiten nion etengabe.

Behin batean, eskolatik atera, eta orkestraren entsegura laguntzeko eskatu zidan. Berak biolina jotzen du. Laguntza behar zuen musika-aretoa joateko, kaleak ordu horretan jendez gainezka zeudelako. Bikain! **Itsuei nola lagundu, 68. gaia**.

Aretoan sartu ginenean, zarata handia zegoela iruditu zitzaidan. Oso giro alaia zegoen. Musikariak beren musika-tresnak probatzen ari ziren: gitarrak entzuten ziren, tinbalak, biolinak...

Lehenengo lerroan eseri nintzen. Handik gutxira, neska bat jarri zen nire ondoan. Pentsatu nuen txirula edo klarinetea joko zuela. Nire bizilagun Martak klarinetea jotzen du, eta, nire leihotik, nola entseetzen duen ikusten dut. Neska begira gelditu zitzaidan:

—Kaixo, ni Melisa naiz.

—Kaixo, Melisa. Ni Pepo naiz. Klararekin etorri naiz, zuen entsegura ikustera. Melisak bere musika-tresna atera zuen bere motxilatik. Ez zen txirula bat, ezta klarinete bat ere, tronpeta bat baizik! Harrituta geratu nintzen neskari begira:

—Zu ere harritu egiten zaitu neska bat tronpeta jotzen ikusteak? Tira, ohituta nago —esan zidan irribarrez. Eta eszenatokira igo zen.

Ze lotsa! Nire aurreiritziengatik, hanka sartu nuen.

Entsegura hastear zegoen. Musikari guztiak beren lekuan zeuden, jotzen hasteko prest. Zuzendaria baino ez zen falta. Neska batekin hitz egiten ari zen. Baina, orduan... Sinestezina! Neskak hartu zuen batuta, eta bera igo zen eszenatokira! Neska zen zuzendaria! Nolatan pentsatuko nuen gizona zela zuzendaria? Egia da kontzertuetan gizonak ikusi nituela beti zuzentzen, baina...

A zer hanka-sartzea! **Besteak epaitu baino lehen, ezagutu itzazu** ikasgaian, aurreiritziak zer ziren ikasi genuen. Ohitura daukagu jendea bere itxuragatik, bere sexuagatik, bere larruazalaren koloreagatik eta abar epaitzeko. Hori da aurreiritzia izatea: jendea ezagutu gabe, nolakoa den pentsatzea. Egun hartan, musika-aretoan, oker jokatu nuen.

Isiltasuna eskatu zuten, entsegua hastera zihoalako. Aurrena, musika-tresna bat entzun nuen, eta, pixkanaka, gero eta musika-tresna gehiago. Zenbat eta musika-tresna gehiago, orduan eta politagoa zen melodia. Hor zegoen koska: desberdinak ziren guztiak, baina, elkarrekin, oso multzo ederra osatzen zuten.

Begiak itxi nituen, eta Anuar pianoa jotzen hasi zen. Une horretan, begiak itxita neuzkanez, adi-adi entzuten ari nintzen, eta Klarak esan zidana gogoratu nuen:

—Nik pertsonak beren ahotsagatik ezagutzen ditut. Itsua naizenez, ezin dut ikusi altuak edo baxuak diren, haien larruazalaren kolorea zein den, edo nola janzten diren. Baina adi-adi entzuten ditut, eta hitz egiten duten moduagatik gauza asko jakiten ditut. Anuarrek, adibidez, beti esaten du bere larruazala txokolatearen kolorekoa dela. Nik ez dakit txokolatearen kolorea nolakoa den, baina badakit Anuar txokolatea bezain goxoa dela.

Ni harrituta nengoen orkestra entzuten. Ze musika ederra! Baina, bat-batean, argiak itzali egin ziren, eta musikariek utzi egin zioten jotzeari.

Ramon atezaina sartu zen aretoan. Esan zigun ez zekiela zergatik joan zen argia, eta mesedez aretotik pixkanaka ateratzeko.

Jende guztia zutik jarri zen, baina ez zen ezer ikusten, dena ilun-iluna zegoen-eta. Zuzendariak ez zekien zer egin. Neska-mutil asko beldurtuta zeuden. Orduan, Klarak oihu egin zuen:

—Isildu, mesedez!!!

Denok isil-isilik geratu ginen, harrituta. Klarak esan zigun zutik jartzeko eta elkarri eskua emateko. Gero, ilaraz ilara, muturrean zegoen pertsonari eskua eman, eta irteerara eraman gintuen.

Denok kanpoan geundenean, zorionak eman genizkion Klarari, bere jokabide bikainagatik. Ramonek esan zigun zirkuitulabur batek sua eragin zuela, baina ez zuela ezer esan, jendea ez izutzeko.

Etixerako bidean, ni haluzinatuta nengoen Klararekin. Esan nion asko gustatu zitzaidala bere jokabidea. Beste guztiok iluntasunarekin beldurtuta geunden bitartean, bera lasai eta ondo moldatu zen musika-aretoan, inolako arazorik gabe. Oso ausarta izan zen!

—Ez, Pepo, ni ez naiz ausarta. Baina, itsua naizenez, iluntasunak ez dit beldurrik ematen. Guztiok ezberdinak gara, eta bakoitzak bere bertuteak dauka. Bertute bakoitza une egokian erabiltzen jakin behar dugu.

—Orkestrako musika-tresnak bezala —esan nion nik. Eta kontatu nion nola egon nintzen begiak itxita musika entzuten.

—Denok batera jotzen dugunean, harmonia sortzen da. Musika-tresna bakarra entzun beharrean, talde osoaren lana entzuten da, melodia. Eta orduan ikusten da musika-tresna desberdinek elkarrekin jotzean emaitza bikaina lortzen dela.

—Esaten ari zarenak Superheroien Akademiako ikasgai bat dirudi!

—Nik beti adi-adi entzuten ditut zure kontuak, Pepo. Eta garbi dago gai guztiak buruz dakizkizula. Baina, begira, aholku bat emango dizut: ez zaitez hain zorrotza izan. Asko gustatzen zait nola laguntzen didazun, baina batzuetan pixka bat astuna izaten zara. Itsua izateak ez du esan nahi moldatzen ez dakidanik. Zure laguntza askotan oso lagungarria izaten den arren, batzuetan ez dut inoren laguntzarik behar izaten. Gaur bertan ikusi ahal izan duzu hori. Ikasi egoera bakoitzean nola jardun behar duzun, baina saiatu naturaltasunez jokatzeko. Ez jokatu aginduak betetzen arituko bazina bezala; ez izan Akademian daukazuen robot horiek bezalakoa.



Etxean nengoenean, Klarak nire jokabideaz esandakoaz pentsatzen aritu nintzen. Nik uste dut arrazoia zeukala. Batzuetan oso zorrotza izaten naiz, eta aginduak betetzen arituko banintz bezala jokutzen dut; naturalagoa izaten ikasi beharko nuke.

Gainera, entsegu horri esker, konturatu nintzen Akademiako gai batzuk ez nituela uste bezain ongi ikasi. Pertsona bakoitza den bezala onartu eta errespetatu behar dut; albo batera utzi behar ditut aurreiritziak, eta ez dut inoren gaineko iritzia izan behar pertsona hori ezagutu gabe, are gutxiago neska edo mutila izatearen arabera!